

# Euskotrenek tren zerbitzu berezia eskainiko du ostegunean Real Sociedad – FC Barcelona partidarako

Euskotrenek, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren menpeko sozietate publikoak, tren zerbitzua indartuko du Real Sociedad – FC Barcelona futbol partidarako joan-etorriak errazteko. Partida hau astelehenean, apirilak 21, 21:30ean Reale Arenan jokatu da. Partida amaitutakoan, Euskotrenek tren bereziak eskainiko ditu Hendaia, Altza, Lasarte-Oria eta Zumaiara joateko.

Zerbitzu berezi horren helburua partidara joateko garraio publikoaren erosotasun-aukera bermatzea da eta, aldi berean, zaleak trenetan ere banatu ahal izatea. Euskotrenek gogorarazten du garraio publikoan maskararen erabilera oraindik derrigorrezkoa dela.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen telefonoa dute eskuragarri: 944 333 333. Horrez gain, Euskotreneko langileek zerbitzatutako geltokietan eta geralekuetan jaso daiteke informazioa, baita APP ofizialean, [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) webgunean eta [@euskotren](https://twitter.com/euskotren) twitter gunean ere.

Igorpen data: osteguna, 2022ko apirilaren 19an